

AURKEZPENA

Lan Harremanak aldizkariaren ale honen gai monografikoa «Lan- eta gizarte-eskubideak krisi garaietan» da. Alearen izenburua erabakita zegoen Espainiako gobernuak lan- eta gizarte-arloan abian jarri dituen murrizketak hasi zirenerako. Beraz, artikulua eskatu zirenean, ez zen kontuan hartu ikuspegi hau. Hala ere, azkenean errealitatea nagusitu da, eta artikulua gehienek gaitzat hartzen dituzte murrizketa horiek dagozkien arloetan izaten ari diren eraginak. Nolanahi ere, aldizkariaren Erredakzio Kontseilua jakitun da gaur egungo testuinguru ekonomiko-sozialean aztertzeke dauden gai ugariak.

Juan Hernández irakasleak fundamentalismo kapitalista kritikatzeko du, haren adierazle nagusiak, mugarik gabeko merkatuak, ezbaian jarri duelako Zuzenbidearen eginkizuna eta, hortaz, herritarren gizarte-eskubideak. Ideia bera aldeztu du Mikel Urrutikoetxea irakasleak, nahiz eta beste ikuspegi batetik. PPren gobernuak eginiko erreformatatik abiatuta, agerian uzten du nola gobernuaren jarduteko moduak eta erabilitako erretorikak krisiaren banaketa ez ekitatiboa ezkutatzeko helburua duten.

Olga Fotinopoulou irakasleak bereziki erreparatzen dio gatazkak auzibidetik kanpo ebazteko sistemen indartzeari, negoziazio kolektiboko sisteman egin diren azken erreformen baitan.

Carlos Bravo eta Enrique Martín-Serranoren artikulua Europar Batasuneko pentsio-sistemen erreforma aztertzen du, azken hamarkadetakoa fenomeno demografikoen eta ziklo ekonomikoen eraginean. Alde horretatik, gizarte-babes desberdinak eskaintzen dituzten bi eredu aipatzen ditu: alde batetik, gizarte-eragileen eta gobernuen arteko negoziazio eta akordio zabaletan oinarritzen den eredu; bestetik, alde bakarreko ekimenez ezartzen dena.

Jaime Fernández Ortek aztergai hartzen du 27/2011 Legeak erretiro-pentsioen erreforma duen eragina. Erreforma gizartearen zati handi kalterako izango da, eta emakumeei eragingo die bereziki, zorrotzu egingo direlako pentsioa eskuratzeko baldintzak, txikitu egingo direlako zenbatekoak, zigortu

egingo dituztelako kotizazio-hutsuneak eta mugatu egingo direlako minimoei dagozkien osagarrien zenbatekoak.

Amaitzeko, José Manuel Quintanak gogoeta egiten du flexiseguratasunaren ideari buruz. Lan arloan flexibilitatea edo malgutasuna sendotu nahi duen ideia bat da, «segurtasun» kontzeptuaren barnean sartzen diren neurri konpentsatzaile batzuen truke.

Artikulu monografikoez gainera, beste batzuk ere bildu ditugu *Lan Harremanak*-en atal irekian. Zehazki, Jaime de Hocesek bitartekaritzari erreparatzen dio, auzibidetik kanpo ebazteko sistema gisa, eta sistema horretaz arduratuko diren pertsonen prestakuntza egokiaz ohartarazten du. Bere aldetik, Ángel Olaz irakasleak erakundeen garapenerako giltzarritzat duen elementu bat aztertzen du: pertsonaren egokitzapen profesionala lanpostura.